+

Dominica 1.ª de Cuaresma. Ductus est Jesus &c.

Ynoiz ecusgarriric izan bada, da, dudagabe, gaurco Evangelio Santubac dacarrena. Jesu Xpto izanic ain santuba, norc erango leuque infernuco etsaiaz ibilli bear ebela burruca leguez? Norc siñistuco eben, etsai guzurrezco au bere indarrac Jaungoico bategaz neurtcera atrevituco zala, eta pecaturic eguin ecin daiguena, pecaturaco tentatuco ebena? Orregaitic ere oneraño allegatu zan etsaiaren atrevencia. Icusiric etsai orrec Jesus maitea berroguei egunecó baru luciaguin argalduric ta goseturic egoala, bere aurrera joanic esan eutsan, baldin Jaincoaren semea bazara, aguindu eguizu, onaco arri oiec, ogui bihurtu ditecen. Ez eben gure Salvadoreac milagroric eguin bearric, bere gosea illtceco; baña ez eutsan gusto au etsaiari emon gura; Guizona etzala oguiaz vivi, ezpada bear ebela ere Jaincoaren verbia, erantzun eutsan gure Jesus onac. Icusiric vide onetatic burlatua gueldituzala, artu eben beste vide bat etsai gaistoac.
Eroan eben Jesus maitea Jerusalengo Templuco tontorrera, eta esan eutsan ichi eguiozu cere buruari emetic bera jausten, bada escrivituric dago Jaincoac aguindu deutsela bere Aingerubai euren escuetan zu artceco, arrizen baten contra minic artu eztaguizun; baita ere escrivituric dago, erantzun eutsan Jesusec, eztala Jaincoa tentatu bear; etzan onembertegaz ere contentadu etsai madaricatua: Eroan eben bada gure Jesus maitea mendi altu baten puntara, eta esan eutsan

ona emetic iruten dixan erreinu ta ondasun gustiac emongo deutzut, baldin auspaz jausiric adoratcen banazu; zoaz ortic, esan eutzan orduban Jesusec; Zure Jaun ta Jaincoa adoratuco dozu, ta bera bacarric servituco dozu. Au da ecin sinistu ditequean gauza bat, Evangelioac berac esba lecar; baña ez gaitecen icaratu, cegaitic nola Jesuxtoc gustia padecitu eben gugaiti, tentacio oiec ere padecidu cituban gugaiti, gue nola vencitu bear dituguen eracusteagai tic. Berac onetaraco escusidia emon guzan izan eutzan etsai ari, dio Sn Agustinec. Bera da gure buru, ta aguintaria, ta berac emon guzan izan eucun, etsaia vencitceco leccioa edo icasvidea, cegaitic pecatuaz campora gue iraasten dituguen gaiz, negue, ta tentacio gustiac berac ere ala eraan cituban. Ezta bada pecatu tentatua izatia, cegaitic Jesuxto bera ta Santuac izan dira tentatuac; baña gueri gueta ditequean gaichic andiena da, tentacioan jaustea edo consentitcea.

Ycasi daiguan, bada, tentacioac vencitcen; baña onetaraco ja quin bear dogu, ce tentacio generoac gueiena galtcen gaben. Punto 1.º Ycasi daiguan, tentacio oiec vencitceco videa. Punto. 2.º

Guizonaren vicitza, mundu onetan vici garian vitartean, da betico tentacioa, ta betico guerra, Job Santubac dirianez. Tentacioac jarraitcen deusco dempora, toqui, ta edade gustie tan, ta ala aldoguen moduban defenditu bear garu. Pecatu ban concebituba edo sortuba izanic guizona, bere barruban dacan pecatuaren ta gaistaqueriaren surtrai gaistoa. Batzu betan sentitcen dan bere gorputcean errazoiaren contraco legue oquer gaisto bat, beste batzuetan inclinacio gaisto ori su emoten deutzen gauza arcoren artean ibilli bear dau, ta etsaiac beste aldetic aire emoten deutzo, ta gu nola

tragatuco gaben dabill, leoe irugarri bat leguez. Eztago edado
ric, eztago estaduric enemigo oistatio libre dagoanic. Ah! ta cein
negargarria dan gure suertea, beti ya jaustero peligruban vici bea
rra. Baña poztu bear gaben ~~gauza~~ gauza da, Jaincoac etsai oiei
gustiai gu tentatcen ichiten badeusta ere, gure oneraco izanaz
gañera, bera dago beti gugaz, ta berac emoten deuscu, tentacio
oiec vencitceco, bear dituguzun indar, ta laguntza gustiac. Egui
consolagarria da au, Jaincoaren videetan esperienciaric eztau
guen anima bildurtientzat. Guziscatcen eta bildurtcen dira, ta
uste daube, pecatu eguindaubela tentacio ta pensamentu gaiztoac
izan dituelaco; baña virtutea eztago, tentacioric ez izatian;
ezpada tentacioac eugui ta vencitcean. Au da, Christaubac
irabasten dauben victoria, ta zubec ere santu eguingo zaubena.
Baña cembat modutacoac dirala uste dozube, zubec vencitu
bear dituzuben tentacioac? Comunguino iru modutacoac dira,
etsaiac guizonari bere burura ecarten deutzan tentacioac; au
da; atseguintarun loiac, vanagloria, ta interesac. Iru modu
onetan tentatu eben etsaiac Jesuchristo, Evangelioan aditu dozu
ben leguez. Atseguintarunaz tentatu eben, arriac ogui bihurtu
eguiala, esan eutzanian; vanagloriaz, templuaren puntatic bere
buruba bota, ta Aingueruac artuco eubela esan eutzanian;
ta azqueneric interesaguin, bera adoratceagaitic, munduco
ondasun gustiac esquini eutzanian, dio Sn Ciprianoc. Oneta-
coac dira, bada, guizonari beragan aguetaranen etsaiac ifint
cen deutzan lazoac, ta oiec dira ere, santu batec dioanez, gure
vida gabe gustien suztrai gaiztoac: Da esatea, atseguin gaizto
onen desirac, aberastarunen goria, ta berteac baño gueiago
guna izatia; orra gue bota bear dituguzun etsai bildurgarriac;
orra etsaiac mundic galdu guna gauben, icusi daigun bacoit

tzaren indarra, vencituric gueldittu ezgaitecen. Gue dogun
etsairic indartzuena da, atzeguin gaistoraco daucagun desira.
Cembat eta pasio onec ante gueiago daucan gure naturalecian,
orduban da peligrosoagoa, ain andia da guzaz dacangun araqui
aren pirutarma, ece ecin bota dogu guganic, ta ezda erraz
defenditcea bere contra, cegaitic nola gugaz dacangun natura
leza bigun au, gueroc gavilltza gueure gacharen ordonen, ta
nola cebo onetan arquitcen dogun, gure sentidubac cegaz conten
tadu, orec beronec gure gaitza gueitcen dau. Gure aintcinaco
Guraien pecatuaezquero, ain erituric gueldittu guiniar, nun
atzeguin licito edo ibriaguin contentadu bearrean, pecatuban
orduan gavis, ta nola etsaiac ezagutcen daven angalac gania
la, alde onetatic, gueien perseguitcen gau. Gastelu bat ere
angalen dagoan toquitic etsaiac salto eguin oy duan leguez,
bapere barrucoaquin alcan aituta badago, modu onetan Demo
nioac eguiten dau gugaz. Ezagutcen dau pecaturako dogun in
clinaciñoa, su ematen deutzo inclinacio gaisto oni, ta gure
pasio gaistoac alcan adituric gure viotz ta animan saba egui
tenda. Ah! ta cembat victoria irabarten estitu gugandic
gure etsaiac. Cegaz uste dozube, vencitu ebala Eva gure leten
go ama? Jateco deseo gozoaz. Cegaitic erre cituban Jaincoac
Sodoma, ta Gomorraco Ciudade eder aiec? Aitatu ere ecin
ditesquean gusto loi batzuc gaiti. David ta Salomon Jaincoa
ren gogoco guizon aiec, cere ecarri cituban desohonrra ain
andi ta lotsagarrietara? Atzeguin gaisto batec. Baña esto
zu cer suanic dempora aintcinacoetara egui onen pruebara
co. Nundic etaztcen satzuba sentitcen dituzuben naiza

be, desordena, ta estudanunac, ezpada zuben atzeguintanunac gozatceco ansia ta deseo onetatic? onela etsaia zuben pasioaz valiatzen da, zubec tentatceco, zubec ichuteco, ta zubec irabasteco. Baña zubec orarioan sartu ~~ezpaziña~~, ceuren pasioari su emen ezpaceutec, etzinien jausico, ta etsaiac ez eztzuben esango lagaeguetzube ceuren buruari; Cer? oraioan ceroc sartu bagara ere, etsaiaren tentacioac beroc etcindu quec cuidaduban paratu bear? ori da ceuben buruben tentatzalleac eguitea, ta ceuren burubaguin confianza zoro bat eguitea, ta ori da, zubec baño virtutian sendoago egocenac Jaincoaren videtatic aterazic galdu dituana. Au da vanagloria, ta presumpcio andi bat. vanagloria onec galdu cituban Aingueruba ceruban bertan, ta onegaz etsai orec galdu gura gaube gu ere. eztemen Jerusaleni leguez esaten, gueure burubac goitic bera erorteco, ezpada betic gora temploco punta raño gueure vanidadiaren vidoz igo daigula. Ain fiña da presuncioaren venenoa, ece virtutean sendo, ta firme dagocenac ere arcotan erituric gueldicen dira. Ta ala cembat barau, limosna, ta oracio galtcen dira euren ganaco amoria ta euren buruen estimacio onegaiti? Ta ala N. C. mundu onetaco obra onac eguin bear dira Jaincoen servicioaraco, eta ez munduboni cumplimentu emotearren.

Guizonaren vicira galtcen daben irugarren tentacioa da interesa. Gure eguiteco gustiac interesagaitic dira communmente orta arquituco da inox Idolo triste onen ondoren estabillenic. Gustiac gura daube mundu onetan conveniencia vici izatea, gustiac gura leuquie euren ondorengoac ondo acomadcea, onei ondarum ugariac ichitea; eta cer guertatcen da? Nola eztan ezinac bear dirian videtatic ondarumac ain laster eguitea, eztaube besteric ~~eguiten~~ pensatcen, ezpada nola irabacico dauben

oguer edo zucen. eztau importa Pobreac, jornalerroac, eta emparauco gente mediansa sinarpinatuagaitic; oneic naran porrian ichiagaitic, tratu gaistoac ta usurraquin demporia emo nagaitic; eztau importa, honrra, crelioa, ta osasuna galdua gaitic; eztau importa dirubac equiten dan erqueao, legue gur tiac urrutuagaitic. Orra, N. C., cer dacarren interes ichuben deseoac. Eta ezta au gustiau, mundubar eguneco icusten dana? Oh! eta ce aguintza andia daucan interesac gure vid zaren gañean! Ynteres gaisto onec ecarten gau Demonioaren esclavo equiterañon. Onec obligatcen ditu Codiciosoac, Demonioaren aurrean belaunicatcera. Onec Demonioa adoratcera obligatcen gau; oficio onec Jaincoaren legue Santua milla modutara auri eraguiten deuscu, pobre tristetara euqui bear guequian erruqui taruna quentcen deuscu, enfin, gure viotzac, arriac baño gogo rragoac equiten ditu, Ynteresari Jaincoari baño gueiago gura deutzagula; eta or lurraquetarren ura bigarren printura cein dan zubei aditcera emotea, ce modutan vencituco dituzuben tentacio oiec.

Yndarrzula ta arco jaquina bada ere gure etsaia, ala ere eztewsen ecarrico inoiz burura, vencitu ecin daiguegun tenta cioric. Jaincoa chit leiala da, dio Sn. Pablec, ta eztau gure indarrar gañera tentatuac izan gaitecen consentituco; berac tentacioaren neurrian indarrac emongo deuscu. Orregaiti Sn. Agustinec etsaia comparatcen dau, catean loturic da goan chacur bategaz. Loturic dagoan chacurrac zaunca arco eguin leique, baña berzagana doiananri baño gachic equingo eztautzo. Onen berte etsaiac equiten dau. Ynfernuco gurtiac

alcarzana juntatuta ere, ez gaube vencituco guerac gura ezpado gu, gu argalac eta erzarac gara jauten, baña Jaincoaren gracia ta laguntza indarzuba da. Baña, Jauna, esango deustazube, tentacio oneic nola vencituco ditugu? asco dira, N.C., tentacio oneic venzitceco erremedioac; baña gustiac verba baten esango deutzubet, bada onetara datoz besteac ere, ta da contuban vici izatea; ta cetan dago contuban vici izate au? tentacioraco beti guertu egotean, tentacioaren ocasioai iguez eguitean, ta apetito ta pasio gaiztoac eiitcean. Ala eracusten deuscu Jesuchristoren Magestadiac, desiertora joan, munduagandic iguez eguin, ta berroguei eguneco barubac ateratcean. Christaubac eguin bear daven lenengo gauza da, tentacioraco bere viotza guertatcea. Au da, Christau ona izangura davenari Espiritu Santubac eracusten deutzan lenengo leccioa, eta Jesuchristoc berac iracutsi euscun vide oni ja raitu bear deutzagu, desiertura beragaz iguez eguiten dogula. Salvadore adoragarri onec ez eucan desiertura juan bearric; mun duaren erdian vici zala, modu onetan etsaia vencitu eiquian, ez eucan munduaren vildurric ecertan cer euqui; baña nola etorri zan mundura, gure exemplo ta ispillu izatera, berac vencitu cituban tentacioac, guri doctrina au ichiteagaitic. Alperric pensatuco dozube bada, etsaia vencituco dozubela, ceroc peligruban sartcen bazara. Jaincoac bere gracia esquintcen deuscu, eguia da, etsaiac bialtcen deuscun tentacioetaraco. Pensatcea ceroc guradozu bena eguinda, Ainguerubac gordeco zaubela, zoraqueria da, pre suncio peligrosoa, beste asco, ta zuboc ere galduco zaitubena.

Eta eguia esateco, ce laguntza ordubau izatea guradozube?

ocasiotic iguer eguiteco laguntza; bada usten eguizube, iguer eguizube ocasiotic: Cepaitic ceure Infernuco chacurragana bazoace, jango zaube; Ha! ta cembat vider au guentatu ete jatzube! zuben pecaturic gueienac, zubec peligruba billatu dozubelaco izan dira. Eztago, bada, beste erremedioric, iguez eguin, victoria inabaci gura badozube. Baña victoria au ezta osoa izango, zuben pasioac, eta inclinacio gaistoac eri eta domatan ezpadi tuzube. Campoco etsaietatic iguez eguin daiquezube, baña ez, beti zuben barruban daucazuben etsaietatic; ta ala mortificacioaren videz euren neurrian eugui bear dituzube, eguiac co Christaubac bazare. Au da Jesu Christoc berrogueiñ egunecó barubaquin tentacioraco guentatceam, aiquetan emon eutzubena. Ez eben bear Jesu Christoc onetaraco, baña bere erretiraz eracutsi gura izan euscun, gorputzeco mortificacioaz gure barruco etsaien golpeac vencitceco secreto miragarria. Eztago bada beste erremedioric; eri bear dira pasio oiec; etsaia vencitceco moduric onena da, indarrac quehitcea, eta gueure pasioen indarrac eciñ quehituco ditugu, mortificatcen ezpaga ra. Ta bestela esan eguidazube, zuben pasioai gura daubena emon deutsezubenian, eztautzube tentacioac guerra gueiago emon? eztaube Demonioac orduban gueiago tentatu, bada Diabrubari indarra quendu gura badeutsazube, quendu eguiozube ceuben gorputzari, ta ala zuben animac indar gueiago euquico ditube, etsaien contra peleatceco; bada Sn Agustinec dioanez, ecerchori ere Demonioac eztautzo bildur gueiago mortificacioari baño. Mortificatu, ta ecarri eguizube zeuben gorputza

errazoiaren aldera, alaberne Garizumaco dempora onetan. ta enfermedade, edo zuben oficio necesarac, edo beste motivoren batzuc barubatatic libratcen bazaube, bestetan baño oracio gueiago eguin ezazube, esquiuni eguiozube Jaincoari zuben negue ta icerdiac, ta ufritu pacienciaz. Ona bertan etsaiaren tentacioai indarra quentceco moduba; onela victoria irabaci co dozube, ta victoria onen ondoren Jaincoa eternidade batean gozatuco dozube. Amen.

MAN 678
FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA